


LAKUNTZA

udal aldizkaria



Lege gordailua:
NA-1458/2003

Argitaratzailea: LAKUNTZAKO UDALA - Herriko plaza z/g - LAKUNTZA 31830 - tel. 948-576 015
fax 948 567260 - www.lakuntzakoudala.com - posta elektronikoa: info@lakuntzakoudala.com




2008rako aurrekontua prestatzen eta aurtengo kontuak argitzen

Udal berria sartu denetik 'etxea txukuntzen' ari da. Udaleko ekonomiaren egoera zertan den aztertzen ari dira eta konturatu dira zenbait partidatan aurreikusitakoa baino gehiago gastatu dela. Hori da, adibidez, liburutegia eta ludotekaren kasua: 6.000 euro zeuden aurrekusiak eta 19.000 euro gastatu dira.

Lehenik eta behin Udalak dituen gastu arruntak eta horrekin batera Udalaren eguneroko funtzionamendurako beharrezkoak diren zerbitzuekiko harremanak zer nola dauden aztertu dira. Orain, hurrengo urteko aurrekontuetan zerbitzu horien planifikazioa eta balorazio ekonomikoa egiten ari dira.

Aurrekontuak, Udalaren kudeaketarako tresna garrantzitsuenetakoa dira. Bertan, eman nahi diren zerbitzuak eta egin nahi diren inbertsioak biltzen dira. Udalaren asmoak dira, batetik, diruaren kudeaketa ona egitea, eta horretarako aurrekontuen exekuzioaren kontrola egiteko prozedurak martxan jarriko ditu. Bestetik, herritarren esku informazio jartzeko ahalegin berezia egingen du, eta parte-hartzeari bideak irekiko dizkio.

2008KO AURREKONTUEN PROPOSAMENA: 2.154.208 €




- INBERTSIOAK %54
- LANGILE GASTUA %14
- GASTU FINANTZIEROAK % 3
- GASTU ARRUNTAK %18
- KULTURA, EUSKARA ETA KIROLA %11

Presupuesto municipal y financiación

En vista de que la mayor parte de los ingresos van destinados a gastos corrientes, el Departamento de Administración Local propuso al Ayuntamiento de Lakuntza subir la contribución urbana para hacer frente a inversiones de pavimentación de calles y arreglo del Ayuntamiento. Una vez analizada la situación económica municipal y la evolución de la subida de la contribución (en el año 2006 el Ayuntamiento aprobó incrementarlo de 0,20 a 0,25), el Ayuntamiento ha optado por mantener dicho impuesto en 0,25 y no subirlo.

INBERTSIOAK

2008ko aurrekontuetako gasturik handiena inbertsioetara zuzenduko da, 1.169.567 €-koa izanik. Gastuaren %67a subentzioekin bideratuko da. Aurrekontu honen gastuetan aipatzekoa da euskara bultzatzeko aurrekontuetan partida berezi bat sortuko da. Festetarako eta erromerietarako urte osorako aurrikusi den gastua 70.000 € izan da.



ORGANIZANDO LA 'CASA' POR DENTRO

Uno de los retos de la nueva corporación es hacer una buena gestión del dinero municipal. Con ese objeto, durante estos meses, los representantes del Ayuntamiento han estado estudiando el estado de las cuentas y han visto que en varias partidas se ha sobrepasado el presupuesto. Éste es el caso de la biblioteca y la ludoteca, en las que la partida era de 6.000 euros y el gasto ha sido de 19.000 euros.

Según Oihane Uribe-Etxeberria, teniente alcalde del ayuntamiento, "las previsiones económicas deben ajustarse al gasto real que se pretende llevar a cabo, de esta manera los presupuestos pueden ser una herramienta de control".

Como hemos dicho, en estos momentos el Ayuntamiento está preparando los presupuestos para el año que viene. La mayor parte del gasto de los presupuestos del 2008 se destinarán a inversiones con un total de 1.169.567€. El 67% del gasto se cubrirá con subvenciones. Las inversiones que se van a hacer son las siguientes: arreglo de calles, 524.604 €; arreglo de las escuelas 217.790 €; arreglo del ayuntamiento 161.173 €; arreglo de parcelarias 120.000 €; revisión del plan urbanístico 70.000 €; y, otras inversiones 34.000 €.

Madrilgo 300.000 euroen bila

Lakuntzako udala zinea konpontzeko diru-laguntza lortzeko gestioak egiten ari da.

2006ko azaroaren 8an Madrilgo Kongresuko batzorde batean onartu zuten 300.000 euroko diru-laguntza ematea Lakuntzako zinea konpontzeko, baina Lakuntzako Udalak ez du oraindik dirua jaso. "Erabakia Estatuko aurrekontue-

tan sartuta dagoela ziurtatu dugu, baina oraindik ez dago argi nola konkreatutako den" azaldu digu Oihane Uribe-Etxeberriak. Hori dela eta udala beharrezkoa den tramitazio guztia bideratzen ari da diru-laguntza jasotzeko.



En espera de la subvención del Ministerio de Vivienda para la remodelación del cine

Con la intención de que finalmente Lakuntza perciba los 300.000 euros para la remodelación del cine —aprobados en comisión del Congreso de los Diputados el 8 de noviembre del 2006—, en estos momentos el Ayuntamiento está llevando las acciones necesarias para aclarar en qué se concreta este proyecto.

ESTAFETA KALEA ETA ELIZA INGURUA ZOLATZEKO LANAK

Hasi da Estafeta kalea eta eliza ingurua zolatzeko lanen adjudikazioaren prozesua.

Estafeta, Mañueta eta Madalen kaleak eta eliza ingurua zolatzeko lanen adjudikaziorako orriak onartu dituzte. Horrela, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hilabeteko epea izango dute enpresek lehiaketan aurkezteko. Udalaren asmoa da proiektua ahalik eta azkarren martxan jartzea. Lanak hasten direnetik 6 hilabeteko epea izango dute obra bukatzeko. Lanen aurrekontua 549.538 eurokoa da, eta Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza % 70koa da. Espaloirik ez da egongo, mugikortasuna errazteko.



Aprobado el pliego de adjudicación

El Ayuntamiento de Lakuntza ha aprobado el pliego de condiciones para la adjudicación de la obra de pavimentación de las calles Estafeta, Mañueta, Madalen y alrededor de la iglesia. El plazo de ejecución de las obras es de 6 meses. El presupuesto 549.538 euros y la ayuda del Gobierno de Navarra es del 70 %.

Udala, irekia

Batzordeak herritar guztiei zabalik daude, beraz, hauetakoren batean parte hartzeko interesa duenak Udalera jo dezake

Ekaineko osoko bilkuran udal batzordeen osaketa onartu zen. Hiru batzordetan banatuko da udal lana eta batzorde guztietan bi udal taldeek edukiko dute ordezkariak, jasotako bozken proportzioan, hau da, EAE-ANVk bi ordezkari eta EAK bat.

BATZORDEAK:

Hazienda, langileak, ingurugiroa eta sozioekonomia batzordeko udal ordezkariak: Ricardo Palacios eta Juan Carlos Romero (EAE-ANV) eta Sokorro Artieda (EA). **Hirigintza** batzordeko ordezkariak: Jose Ramon Garin eta Jon Miranda (EAE-ANV) eta Sokorro Artieda (EA). Eta, **euskara, kultura eta arlo sozial**etako batzordeko ordezkariak: Ohiane Uribe-Etxeberria, Jose Manuel Azpiroz, Jon Miranda eta Juan Carlos Romero (EAE-ANV) eta Izaskun Leitza eta Joseba San Sebastian (EA).

Bestetik, udalbatzak hileko azken ostegunetan izaten dira arratsaldeko 8:00etan. Udalak azpimarratu nahi du garrantzitsua dela zinegotzi guztiak parte hartzea: *"hobe 9 egotea 6 baino"*. Bide batez, dei egiten die interesa duten herritar guztiei bertaratzeko.

Comisiones participativas - Ayuntamiento abierto al pueblo

Ya se han constituido dos comisiones. Las comisiones son abiertas, por lo tanto, las personas que quieran participar en las mismas pueden dar su nombre en el Ayuntamiento o directamente a los concejales.

COMISIÓN DE EUSKARA, CULTURA Y ÁMBITO SOCIAL

La primera reunión de la comisión tuvo lugar el 23 de noviembre. En esta reunión se tomaron acuerdos respecto al funcionamiento y temas a trabajar en la misma, presupuestos y acciones a llevar a cabo el año que viene.

COMISIÓN DE HACIENDA, PERSONAL, SOCIOECONOMÍA Y MEDIOAMBIENTE

El 9 de noviembre tuvo lugar la primera reunión de la comisión a la que asistieron 8 personas. El llamamiento se hizo mediante bando. La segunda reunión tuvo lugar el 23 de noviembre.

Con el fin de que el trabajo de la comisión sea más operativo, han decidido dividir en dos: una para tratar temas de hacienda y personal, y la otra para temas relacionados con socioeconomía y medioambiente. Así cuando el trabajo lo requiera, la comisión se juntará para tratar temas de una u otra subcomisión. En Hacienda y Economía están elaborando los presupuestos para el año que viene. Y en lo que respecta a medioambiente, están estudiando la puesta en marcha del proyecto de reordenación del monte. Así han decidido llevar a cabo claras selectivas de hayas en los parajes de Etxatxeta e Irumugarrieta.

Es de destacar que la comisión sigue abierta a todo el pueblo, así toda aquella persona que quiera participar se puede dirigir al Ayuntamiento o directamente a los concejales Juan Carlos Romero (Tati) o Ricardo Palacios.

Jose Ramon Garin

Plan general municipal de Lakuntza

Las Normas Subsidiarias que están vigentes en la actualidad fueron aprobadas en 1989, es decir, hace 18 años, así pues creemos que es hora de revisar las Normas y de diseñar el futuro que queremos entre todos para Lakuntza.

El Ayuntamiento desea que la redacción del Plan cuente con la participación del pueblo, y un seguimiento continuo por el Ayuntamiento para adoptar decisiones antes de redactar el proyecto.

El Ayuntamiento desea que el nuevo Plan cuente con los siguientes aspectos:



- **Grado de protección a cada zona del pueblo**, teniendo en cuenta las peculiaridades históricas, culturales y medioambientales.

- **Estructuras básicas del pueblo** que permitan la posibilidad de desarrollo en correspondencia con las previsiones del entorno, y que sienten las bases de futuras estrategias de desarrollo, compatibles con los valores urbanos de Lakuntza.

Queremos que nos ayudéis y participéis en este proyecto.

BEHARREZKOA DA HIRIGINTZA ARAUEN ALDAKETA EGITEA

Indarrean dauden Hirigintza Arauak orain dela 18 urte onartu ziren. Zaharkituak gelditu dira eta beharrezkoa da herri guztiaren planifikazio integrala egitea; izan ere, urtetan, Udal Planaren aldaketa puntualak eginez hazi da herria eta funtzionamendu horrek arazo asko sorrarazten ditu.

Arau Subsidiario berriak egiteko prozesuan, herri guztiari parte hartzeko deia egiten dio udalak.

Udal ikastaroak

Ikastaroetan, herriko 131 lagun ari dira parte hartzen

Guztira 8 ikastaro desberdin antolatu ditu aurten udalak. Honako hauek: lenzeria, margoketa, yoga, soinketa erritmikoa, aerobik, eskulanak, pilates eta 3. adinerako soinketa ikastaroa. Zenbait ikastarotan bi talde daude, hori gertatzen da margoketan, aerobikean eta pilatesen. Guztira, beraz, 11 talde dira eta 131 lagun.

Deigarria da, nolanahi ere, partaideen gehin-gehienak emakumeak direla; izan ere, aurten hiru gizon baino ez dira parte hartzen ari ikastaroetako batean. Ia ba aurrerantzean gauzak aldatuz doazen eta gizonak ere gehiago parte hartzera animatzen diren.



Buena participación pero pocas inscripciones masculinas

Este curso escolar ha habido 131 inscripciones en los cursos organizados por el Ayuntamiento. En total hay 8 cursos diferentes y 11 grupos. Es de destacar que de las 131 inscripciones solo ha habido 3 inscripciones masculinas. Esperamos que en años venideros el número de hombres inscritos se incremente.

Laboraletako jolas parke berria eta Larrañetako konponketa

Batetik, Laboraletako haur parkea bukatuta dago. Proiektuaren kostua 27.000 eurokoa izan da; 13.000 euro altzarietarako eta 14.000 euro espazioaren egokitzapena eta itxiera egiteko.

Bestetik, Larrañetako parkea egin zenetik ez da mantenu lanik egin. Hori dela eta, behar beharrezkoa zuen hobekuntza lanak egitea. Horrez gainera, zenbait bizilagunek kexa azaldu zuten parkearen segurtatea zela eta ez zela. Behar eta kexei erantzuna emanez, kili-kolo zeuden altzariak kendu eta berriz jartzeaz gain, zola guztia kendu eta berjartzeari ekin zaio. Ziurtasunagatik, 60 metro goma karratu berri jarri dira.



PARQUES INFANTILES

Ya está finalizado el nuevo parque infantil situado en las antiguas Escuelas Laborales. El costo de este parque ha sido de 27.000 euros, de los cuales 13.000 se han destinado al mobiliario y el resto a la adecuación del terreno.

Por otra parte, en vista de la situación tan precaria que se encuentra el parque infantil de Larrañeta y respondiendo a las quejas de varias vecinas y vecinos, se ha procedido a recolocar el mobiliario y sanear el suelo de goma ampliándolo a zonas con peligro.

hartzaindegiari buruz galdezka

Beharrezkoa ikusten duzu hartzaindegi bat?



ISABEL GANBOA

Bai, beharrezkoa, ume asko daudelako. Guraso biek lan egiten dutenean, ezinbestekoa da. Eskolan zein ikastolan 2 urteraino ez dituzte hartzen.

Hartzaindegiak urte bat baino txikiagoak hartu beharko lituzke eta orduzabala izan beharko luke, goiz goizetik arratsaldeko seiak edo zazpiak arte.



JONE PEÑA

Hasiera batean komentatu zen 9:00etatik 13:00etara jarriko zutela hartzaindegi, baina horrek ez du zentzurik, lan egiten dutenei ez baitie ezer soluzionatzen. Nire ustez, hartzaindegiak, langileen ordutegia kubritu beharko luke.



MANUEL RODRIGUEZ

Ideia ona iruditzen zait eta beharrezkoa da herrian haur asko dagoelako. Gainera, herria hazten ari da eta egunetik egunera gehiago etorriko dira.



MARIA JESUS FERNANDEZ

Bai, baina kondizioetan, goiz goizetik gaueko hamarretaraino zabalik egongo dena, 0 urtetik 3 urte bitarteko haurrak hartuko dituen, bazkaria eta askaria bertan emango dietena. 9:00-13:00 bitarteko ordutegiarekin ez du deus soluzionatzen, gurasoen lan orduak kubritu beharko ditu.

Hartzaindegiaren egungo egoera

Aurreko legegintzaldian, Arbizuko eta Lakuntzako udalek zenbait bilera izan zituzten bi herrien artean hartzaindegi bat martxan jartzeko, baina zenbait aukera aztertu eta gero, bertan behera gelditu zen egitasmoa. Orain, Legegintzaldi berriarekin harremanetan hasi dira berriz.

Azaroaren 22an Hezkuntza Departamenduan izan dira bi herriotako ordezkariak eta adostu dute hurrengo hilabeetan hartzea

erabakia. Bitartean, herri bakoitzak bere proposamena landuko du, eta, proposamenak mahai ganean daudela, hartuko dute erabakia. Aukeren artean hamaiika: hartzaindegi elkarrekin egitea, bakoitzak bere herrian edo, txarrenera, ez egitea.

Lakuntzako Udalak, aurki landuko ditu zenbait proposamen eta batzar ireki bat deituko du herritarren iritzia jasotzeko.

GUARDERÍA

El Ayuntamiento de Lakuntza ha retomado contacto con el Ayuntamiento de Arbizu respecto al proyecto de guardería. Así el 22 de noviembre tuvieron una reunión en el Departamento de Educación, y acordaron un calendario para la toma de decisiones y poder entrar dentro de los plazos de solicitud de subvención. Cada ayuntamiento trabajará una propuesta, y la presentará al otro ayuntamiento. Así, las partes se posicionarán. Mientras, el Ayuntamiento trabajará varias propuestas y llamará a los lakuntzarras a una reunión.

OGASUNA, LANGILEAK, SOZIOEKONOMIA ETA INGURUMEN BATZORDEA

Azaroaren 9an bildu zen lehenengo aldiz batzordea eta bertan erabaki zuten bi batzordetan banatzea lana, batzordearen lana emankorrago izateko. Ogasuna eta Langileak batzordean aurrekontuen gaia lantzen ari dira. Sozioekonomia eta Ingurumena batzordean, berriz, mendia berrantolatzeke egitasmoko ekintzak aztertzen ari dira. Eta, dagoeneko,

ekintza horietako bat mar txan jartzea adostu dute. Ondorioz, Etxatxeta eta Irumugarrietan pagoak bakanduk dituzte.

Lan egiteko interesa duenak batzordean sartzeko aukera izango du. Interesadunak, Juan Carlos Romerori (Tati) edo Ricardo Palaciosi izena eman, edo, bestela, Udalean.

TXIMINIAK GARBITU

Negua datorrenez, Lakuntzako Udalak gogorazi nahi du tximiniak garbitu behar direla, zikinak egon ezkeru sua hartzeko arrisku handia dutelako. Norberak garbitzeko aukerarik ez badu lan horiek egiten duten enpresen telefonoak luzatu ditu: POPINS: 948307104 eta 619432914. DES. NAVARRA: 948357652 eta 630410523. Mila esker arduraz jokatzeagatik.

En vista de que llega el frío, el Ayuntamiento quiere recordar a la población que es importante deshollinar las chimeneas para evitar incendios.



ZERBITZU ANITZETAKO LANPOSTUA

Udal osoko bilkuran onartu zen zerbitzu anitzetarako beste langile baten kontratazioa egiteko prozesua mar txan jartzea. Proposamena, EAE-ANVk egin du. Orain, lanpostu publikoa betetzeko, eman beharreko prozesua mar txan jarriko da.

ENPLEADO DE SERVICIOS MÚLTIPLES

El Ayuntamiento ha aprobado poner en marcha el proceso de contratación de un nuevo empleado de servicios múltiples. La propuesta la ha realizado EAE-ANV.

BABESTUTAKO ENPLEGUAREN ALDE EGIN DU UDALAK

Etxarri Aranatz aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak bultzatzen duen Babestutako Gizarte Enplegua Programaren bidez bi pertsona kontratatu nahi lituzke Udalak heldu den urtean. Hori dela eta, Mankomunitatera zuzendu da eskaera egiteko.

EMPLEO PROTEGIDO

El Ayuntamiento de Lakuntza quiere contratar a dos personas a través del Servicio de Empleo Protegido de la Mancomunidad de Servicio Social de Base de Etxarri Aranatz.

HIRIGINTZA AHOALKULARITZA BERRIA

Lakuntzako Udalak, dagoeneko, hirigintza aholkulari berria du: LUA Arkitektoak. Bizilagunek zerbitzua euskaraz jaso ahal izango dute.

NUEVA ASESORÍA URBANÍSTICA

El Ayuntamiento de Lakuntza ha cambiado de asesoría urbanística. LUA Arkitektoak es el nuevo asesor. Las vecinas y los vecinos podrán recibir el servicio en euskara.

BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA JASO ZUEN LAKUNTZAK

Azaroaren 22an Bai Euskarari ziurtagiriak banatzeko ekitaldia egin zen Sakanan. Lakuntzako udaleko ordezkariak ziurtagiria jaso zuten Kontseiluko Idazkari Nagusi Xabier Mendigurenen eskutik.

COMPROMISO CON EL EUSKARA

El Ayuntamiento de Lakuntza ha renovado el compromiso adquirido con Kontseilua. Así, el pasado 22 de noviembre recibió el certificado Bai Euskarari.



Badakizu AHT Lakuntzatik pasako dela?

AHTren eraikuntzak kalteak sorraraziko ditu ingurumenean, ekonomian, zein eskualdean, Nafarroan eta Euskal Herrian. Kalte horietaz jabeturik gauden lakuntzarrok lantalde bat osatu dugu: Olaskitturri taldea, hain zuzen ere. Guk bizirik dagoen Lakuntza nahi dugu, ingurumenari errespetua dion herria; horrexegatik gaude AHTren kontra.

Egitasmoaren inguruan komunikabide zein erakundeek eskaintzen duten informazioa urria da (harrizkekoa, egitasmoa oso aurreraturik dagoelako) eta horrek pentsarazten digu, ez dutela ez jendea informaturik egotea, ez eta eztabaida sortzerik nahi. Horrexegatik egin dugu inkesta bat 50 lakuntzarren artean, eta ikusi dugu informazio eza handia dela. Galdetutakoen erdiak ez da-

ki nondik pasako den trenbidea eta %100ek pentsatzen du ez dagoela nahiko informaziorik. Jasotako informazio apur hori, %50ek herriko taldeen eskutik jaso dute eta beste % 50ek komunikabideetatik. Nafarroako Gobernutik eta Sustapen Ministeriotik jasotako informazioa ezin urriagoa da. Jendearen heren batek (%33) ez daki AHTk Lakuntzatik igaroko dela eta ez dute argi egitasmo erraldoi honek zein ondorio izango dituen.

Horregatik, Olaskitturri Taldeak lakuntzarrak informatzeko apustua egiten dugu, eta adierazi nahi dugu, sensibilizazio, eztabaida eta mobilizazioen bitartez ezarri nahi duguten egitasmo erraldoi hori geldiaraziko dugula. Horrela, bada, adi hitzaldi, eztabaida saio eta ekitaldiei. Guztion artean asko lor dezakegu.



¿Sabes que el T.A.V. pasará por Lakuntza?

Lakuntzarras preocupad@s por las consecuencias nefastas que puede provocar la construcción del TAV, tanto al medioambiente, a la economía como a la sociedad del valle, Navarra y Euskal Herria decidimos juntarnos y crear un grupo de trabajo, "Olaskitturri taldea". Queremos una Lakuntza viva y respetuosa con nuestro entorno. Por eso, estamos contra el TAV.

Veámos que la información que nos dan tanto los medios de comunicación e instituciones, es muy escasa, lo cual nos da lugar a sospechar (viendo que el proyecto está muy avanzado) que no quieren que la gente tenga información ni debate. Por eso, hemos realizado una encuesta a 50 lakuntzarras, y hemos visto que la desinformación es total. Casi el 50 % de la gente no sabe donde se construirá el trazado. El 100% de l@s en-

cuestad@s cree que no hay información. La poca información que ha recibido la han recibido de colectivos populares (50%) y medios de comunicación (50%). La información recibida por el Gobierno de Navarra y el Ministerio de Fomento es casi nula. Un tercio de la gente (%33) no sabe que el TAV afectará directamente a Lakuntza y la gente no tiene claras las consecuencias que puede acarrear este macroproyecto.

Por todo ello, desde "Olaskitturri Taldea" haremos una apuesta clara para informar a l@s lakuntzarras, y mediante la sensibilización, el debate y la movilización pondremos freno a este macroproyecto que nos quieren imponer. Así pues, atentos a las charlas, debates y movilizaciones que habrá. Entre tod@s podemos hacer mucho.

AMA LURRA DEFENDA DEZAGUN, OLASKITTURRITIK EZ DIRA PASAKO!

Lakuntzako Udalarari eskerrak eman nahi dizkiogu laguntza eskaintzeagatik eta tarte hau uzteagatik.
Agradecimiento al Ayto. de Lakuntza por toda la ayuda y por habernos brindado este espacio

2008ko San saastinak prestatzen

JAI BATZORDEA, INDARTSU

Herriko talde guztiek parte hartu zuten abuztuko festen antolakuntzan eta ongi antolatu ziren jaiak. Hala, urtarrileko jaiekin ere gauza bera egiten saiatu dira. San Saastinak prestatzeko lehenengo bilera, azaroaren 15ean egin zuten. 20 lagunek parte hartu zuten. Bertarautakoek erabaki zuten ostiralean hastea festak, eta astelehenera arte luzatzea. Beraz, jaiak 18an hasi eta 21ean bukatuko dira. Urtarrileko festetarako aurrekontua, 15.000 euro ingurukoa da.



PARTICIPATIVA LA COMISIÓN DE FIESTAS

Al igual que se hizo con las fiestas de agosto, la comisión de fiestas ya ha comenzado a preparar los San Saastines del 2008. El 15 de noviembre tuvo lugar la primera reunión a la que asistieron 20 personas. Entre todos decidieron que las fiestas comenzarán el 18, viernes y finalizarán el 21, lunes. El presupuesto aproximado es de 15.000 euros.

